

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Behin betiko onartzea hiri ondasun higiezinaren gaineko zerga ordaindu behar dutenen 2016ko errolda

Nik, Josune Irabien Marigortak, Amurrio Arabako Udaleko alkate naizen honek (Amurrio, Araba)

Jakinarazten dut:

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2016ko ekainaren 16an egindako bilkuran, erabaki zuen behin-behineko onarpena ematea hiri ondasun higiezinaren gaineko zerga ordaindu behar dutenen erroldari (16009C2121 espediente), eta erabakia 2016ko ekainaren 29ko ALHAOn argitaratu zen (73. zk.); haren aurka erreklamazioak aurkezteko epea igaro eta ez da erreklamaziorik aurkeztu, eta beraz, erabaki hori behin betiko bihurtu da, eta hala jakinarazten da jendaurrean, Arabako Zergen Foru Arau Orokorren 98.3 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako (6/2005 Foru Araua, otsailaren 28koa).

2016ko azaroaren 1etik abenduaren 31 arteko egun baliodunetan (biak barne), borondatezko epean ordaindu ahalko dira hiri ondasun higiezinaren gaineko zergaren 2016ko ordainagiriak.

Tasa hori ordaindu behar dutenek zerga zorra Laboral Kutxak Amurrion dituen bulegoetan (Mendiko kalea, 1) ordaindu ahal izango dute, astelehenetik ostiralera, 08:30etik 10:30era, adierazi den epean.

Epe hori igarotakoan, ordaindu gabeko kuotak kobratzeko premiamenduko betearazte bide administratiboari emango zaio hasiera, eta kobratu beharrekoari ehuneko 20ra arteko errekar-gua aplikatuko zaio, indarrean dagoen Zerga bilketarako araudi Orokorrean ezarritako xedapenekin bat etorritik; errekar-gu hori eta luzapenarena bateragarriak dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Amurrio, 2016ko abuztuaren 17a

Alkatea

JOSUNE IRABIEN MARIGORTA